



ALLANDE SOKARROS

Euskarari aspalditik zor zaio egia...

Nahiago nukeen arrazoia ez banu izan... Okerrean ibili baintz... Zoritxarrez, baina, Ipar Euskal Herrian euskararen egoeraz hainbat urtetan *Jakineko* zenbaki berezi hauetan erraten eta errepikatzen dudana egia dela nolabait aitorturik izan da... Ezen, Euskaltzaindiak Baionako Fakultatean joan den azaroaren 16an antolatutako XVII. Jagon Jardunaldietan erran zenez: «Ipar Euskal Herrian, euskara egoera larrian dago» edota «Inkesta soziolinguistikoak erakusten duen bezala, hil ala biziko kontua da (euskal) hiztunak sortzea»... Egari zor diogu, haatik, erranaldi horiek ez zituztela euskalgintzako erakunde ofizialetako arduradun edo ordezkariak egin... baizik eta euskararen alde, egunerokoan eta jendeen artean, lanean ari direnek. Euskalgintza instituzionaleko kargudunek eta *euskalgintzako funtzionarioak* deitzen ditudan horiek, berriz, jarraiki zuten betidanik —edo behintzat kargu horietan dihardutenez geroztik— jokatu duten bezala, eta *komeni den mintzamoldeari* —baten batek *burdin elea* deitu dio— eutsi zioten.

Jarrera horren aztertzen denbora soberarik ez dut galduko, alferretan baita. Haatik, beste behin azpimarratu nahiko nuke Ipar Euskal Herriko euskalgintzaren mundu hori, argi eta argi, bi zatitan egotea gero eta nabariago agertzen dela: hots, alde batetik, euskararen arduradun instituzionalak, eta, bestaldetik, euskararen akuilatzeko eta sustatzeko egituretan dihardutenak. Lehenak sistema politiko baten ordezkariak eta sistema horren menpe diren erakundeetako arduradun edo langileak dira. Kontua da egituraketa politiko

hori ez dela Ipar Euskal Herrian bereziki eratutako aginte batena, bai, ordea, Paris edo Bordele edo behintzat hemendik kanpoko botere nagusi batena. Eta ukaezina da egoera horrek dena, edo behintzat asko, baldintzatzen duela.

Gauzak horrela, aspaldidanik pentsatzen dudan zerbait aldarrikatzera nator. Izan ere, euskararen erakunde instituzionaletan —egungo egituraketa politikoan, behinik behin— sartuta dauden euskaltzale nahiz abertzaleak euskararen konturako politika ukatzaile baten —edo, gutxienez, zorrotz mugatu baten— eskumakil bilakatu dira edo bilakatzeko bidean daude. Horixe da Parisek eta haren ordezkodiren beste instituzioek nolabait lortu dutena: euskaltzale-abertzaleak aurrez aurre jartzea. Batzuk boterezko baliabide zenbaiten jabe —edo erabiltzaile— daude, eta besteak, aldiz, lehen haiek bideratzen dituzten arauetan jartze, ereduetan sartze edo baldintzatzetara makurtze beharrea dira, batez ere dirua lortzeko kontuan. Parisko boteredunek eta euren ordezkoez ez zuketena politika ukatzaile hoberik asmatzen ahal, nahiz eta jokabide hori, gizakia gizaki denetik, erabili den, hots, erosoan agintzeko, parean daudenak zatitu behar direla. Ez nuke erranen Euskal Herriaz kanpoko instituzioen kargudun eta horien menpeko erakunde arduradun horiek nahitara sartuta daudenik euskararen benetako egoeraren ukatze batean. Uste dut, ordea, sinisten dietela ardura duten politika horren emaitza baikorrei... horietatik egongo baita hala ere!

Aitzinamenduek ez dute atzera egitea geldiarazi

Hala, egia da, gaur egun, euskara «onetsia» dela Ipar Euskal Herriko gizartearen esparru zabal batean, herritar «arruntengandik» kargudun mota guztienganaino. Egia da euskararen aldeko «giro on» horren babesean, orain dela zenbait urte pentsaezinak izango ziren aitzinurrats asko egin direla eta egin daitezkeela, hala nola ikastolen eraikitzea edo zaharberritzea tokiko aginte publikoek euren gain hartzea, di-

ruz eta beste. Horrelakoak egiteko, haatik, Parisko agintearen legediarekin gorde-gordeka edo faltuki jokatu beharra bada. Egia da euskararen agerizko presentzia nabarmen handitu dela, elebitasuna eredutzat bihurtuz kale eta plazetako seinaletik. Egia da euskara idatziaren lekua zabaldu dela euskarri eta esparru anitzetan... irakurtzeko indarra egiten dutenen kopuruaz zalantza askoz ere handiagoak egon daitezkeelarik, baina! Egia da euskara eta euskaraz ikastearen arloa hazi dela, ikastolen eta eskola elebidunen ildoetatik. Alabaina, euskarazko irakaskuntza-ikaskuntzaren eredu bietako kopuruak bateratzea iruzurrez jokatzea dela argiki erran beharra da, euskara lehentasunezko eredua, *murgiltze eredua* deitzen duten hori, eta eskola elebidunetako parekaezinak baitira euskal hiztunak sortzeko unean. Egia da haurtzarotik euskarari ohartarazteko indarririk egin eta egiten dela, hala nola, Euskararen Erakunde Publikoaren eta hainbat Herri Elkargoren lankidetzaz, Euskararen Euskal Pack hori guraso berriei helaraztearekin.

Zerrendatu ditudan horiek guztiak egiak dira. Baina ez da gutxiago egia euskarak eguneroko baliapenean atzera egiten jarraitu duela eta jarraitzen duela. Hori ez da nik neuk soilik erraten dudana; hori da Siadeco ikerketa etxearen V. inkesta soziolinguistikoak agertu duena —edo erratera ausartuko naizenez, ezkutatzea lortu ezin izan duena—. A bai... inkesta soziolinguistiko xeble horiek! Gogoratzen naiz aurrekoek edo horietarik baten batek ziurtatzen zigitela euskararen esparrua oso estua baldin bazen Lapurdi kostaldean, Ipar Euskal Herri barnealdean, ordea, gotorleku sendoak zeuzkala. Ez ote zuten erraten noizbait, Zuberoan esaterako, euskaldunen kopurua %70 edo inguru horretakoa zela? Azken inkestaz ere balegoke asko errateko eta gaitzesteko, hala nola Baxenabarre eta Zuberoa galdezkatuta jende multzo berean jartzeagatik.

Seguru asko, baten batek serio azalduko du horrela jokatzea kopuru aski adierazgarri bat osatzearen helburuz izan-go zela. Egin gogo dudana galdera da, aldiz, Baxenabarre eta

Zuberoa inkesta horretan bateratzearekin ez ote den batez besteko «onesgarriago bat» agerrarazi nahi izan. Beste modu batera esanda, Baxenabarre «euskaldunagoak» ez ote duen Zuberoa «erdaldunduegi» edo «asko erdaldundu» baten emaitzak «txukuntzeko» aukerarik eman. Zuberoan bertan galdetzatu multzo bat osatzeko nahikaririk izan bazen, emaitzak beharbada hitsegiak agertuko ziren... Gure herrialde txiki honetan gauzak denen jakinean izateko moduan baitira, Allande Sokarros sasi-inkesta egileak erranen luke zuberotarren %30 batek, nonbait han, euskaraz dakiela, gutxi edo aski. Dakiela... edo jakinen lukeela, ez baita gauza bera! Hori euskara jakitearen kontutik, zeren eta erabilpenaren kontuaz mintzatzen hasiko bagina... orduan guztiz deskalabrosoa izango bailitzateke!

Euskararen biziarazteko nahia eta jokabidea kontzientziak ditu hazten

Azken inkesta soziolinguistikoak —azkenean!— agerira eman duena da euskararen ikasteko aukerak eta ikasle kopuruak nonbait hazi egin badira... euskararen etxeko eta kaleko erabilpenak behera egin duela. Beste gisaz erranez, euskal hitzun berriak sorrarazi baldin badira ere, euskararen mintzatzeak gutxitzen jarraitu duela, eta ez guti. Ondorioztatze hori, haatik, ikusi nahi izango zuenak ikusteko modukoa zen, aspalditik ere. Aski da Ipar Euskal Herri barnealdeko —kostaldea ez dut aipatzen ere!— edozein herritako plazara joatea eta nahi den denbora oro hantxe ibiltzea ohartzeko euskara oso-oso gutxi entzuten dela. Salbu, beharbada, hitzordu berezi batzuetan, hala nola merkatu edo azoka egunetan; baina erraten ahal daiteke kasu horiek nolabait faltsuzkoak direla, hainbat lekutatik etorritako euskaldun kopurua biltzen baita leku eta egun jakin batean. Elkarretartzeko aukera berezi horietan euren artean euskaraz ari diren herritar horiek —eta ez dira gazte-gazteak gehienetan—, akaso, ez dira euren eguneroko beste harremanetan euskaraz aritzen... Nolanahi ere,

argi da —eta berriz ere diot, aspalditik— euskararen erabilpena ikaragarri gutxitu dela eta gutxitzen jarraitzen duela etengabe. Eta hori, parte handi batean, euskaraz dakitenek beraiek ez dutelako beharrezkotzat ikusten euskaraz mintzatzea eta, gisa horretara, erdaldun jarrera batean ibiltzeak ez dielako inolako arazorik sortzen.

Jokaera horren sorburu nagusia —eta bakarra ere, erran nezake— euskararekiko kontzientzia falta da; hots, beste era batera errateko, euskarak gaituela euskaldun egiten gogoan edukitzearen eskasa. Horretan da koska, eta ez nik dakit zer sasi azalpen edo azterketa soziologiko batean, orain dela gutxi euskararen arloko «aditu» baten hitzetan irakurri izan dudan bezala. Egia da bai ingurugiro diglosikoak ez duela bultzatzen euskaldun bat euskaraz mintzatzera, aitzitik baidetik. Baina egia da ere ingurugiro horri aurpegi egiteko delibramenduak baduela izen bat eta hori dela, berriz ere diot, *kontzientzia*. Euskararen esanahiaren eta lekuaren kontzientziak du ezberdintasuna egiten euskaltzale soilaren eta euskaldun abertzalearen artean. Abertzale euskaldunak —erdaldunak baitira ere...— badu euskararen kontzientzia, erran nahi baita euskarak bizirauteko eta garatzeko behar-beharrezkoak dituen baliabide ororen ohartuki aldekoa dela. Gaur egungo egoera nolakoa den oharturik, argi eta garbi abertzale euskaldun bat berreuskalduntze ikuspegi eta jokabide baten aldekoa da, euskaltzale soila jarrera irmo horren alde ez delarik baitezpada. Jarrera politiko bat baita, argiki eta zehazki.

Legea bai... baina guk geuk gauzatzeko eskumen instituzionalekin!

Hain zuzen, Ipar Euskal Herrian euskararen gaur egungo hil ala biziko egoerak jarrera eta erabaki hartze politiko argi eta irmoak behartzen ditu, inolako zalantzarik gabe. Euskararen ofizialtasuna —edo koofizialtasuna, nahi bada— aldarrikatuko eta xedatuko duen lege bat premia gorrikoa da, ze-

ren eta horrelako baliabiderik gabe odol isurtze itzelari odol berritze xiringatze txikiekin aurre egiten jarraitu besterik ez baitugu. Alabaina, euskararen lege bat egotea ez da nahikoa, lege horren gauzatzea eta bideratzea ez bada hemen bertan egiteko eskuduntzarik, hots, Ipar Euskal Herriaren beharrei egokitutako aginte politikorik ez bada. Euskararen babesteko soilik ez, baita sustatzeko eta garatzeko eskubiderik eta ahalmenik ere emango dion lege bat eta Ipar Euskal Herriarentzako estatutu politiko eta egitura instituzional egoki bat: bata ezin da bestea gabe ibili, bata —legeak— ez du eragin-korra izateko aukerarik bestea —aginte propioa— ez bada eratzen. Ipar Euskal Herriko aginte instituzional propio baten kasuan, gainera, euskalgintzako funtzionarioekiko aginpidea arras argiagoa eta zehatzagoa izango litzateke... nola ere horien ardura alorraren mugak!

Euskararen babesteko eta garatzeko legeaz eta Ipar Euskal Herriari egokitutako aginteaz gain, euskarari hainbestearinoko kalteak egin dizkion hezkuntza arloak ere esku hartu beharra du gure hizkuntzaren suspertzean eta sendotzean. Horretarako, nahitaezkoa da lehen mailako eta bigarren mailako irakaskuntzan euskararen lehentasunezko eredia edo murgiltze sistema indarrean jar dadin. Frantziako hezkunde nazionalak baluke zilegitasunik bihar bertan neurri hori indarrean jartzeko, euskararen aldeko lege bat eta Ipar Euskal Herriaren egituraketa instituzional propio bat izan gabe ere. Badakigu, hargatik, euskal jendartean azaldutako nahikari zabal eta irmo bat eta horrek hazitako indar harreman egoki bat egon ezean, Parisengandik ez dela oparirik igurikatu behar. Balegoke gaur egun herritarren aldetiko nahikari zabal hori eta kargudun politikoengandik indar harreman egoki bat eraikitzeo aukerarik. Hortaz, aukeretatik gauzatzeetara, asmoetatik obratzeetara pasatzeko garaia balitzateke... Baina, beti ere nireari eusten diot, nahikariak kontzientziaren beharra badu, eta indar harremanaren osatzeak, berriz, borondate politikoa. Horretan garenik ez naiz batere segur...

Yann Trelu: agur eta ohore

Zenbaki honetako ekarpenean asko luzatu banaiz ere, ez nuke bururatu nahi berrikitan utzi gaituen adiskide bati agur eta ohore azaldu gabe. Pena handiarekin jakin dut urriaren azken egunean zendu zela Yann Trelu bretoi euskalduna. Euskalduna, bai, gure hizkuntzaz jabetu egin baitzen Euskal Herrian iragan zituen urteetan. Britainiako seme honek kontzientziatzko urrats hori egin zuen... hemen bertan sortu hainbatek ez dutelarik egin eta ez eginen erel Yann Trelu... Oraingo belaunaldietan nork izan du horren berri? Guztiz tamalezkoa da, baina Euskal Herriaren kontzientzia hartze eta arlo askotako bilakaeretan berebiziko garrantzia izan duten hainbat eta hainbat lagun ahanzturan urtzera utzi ditugu, eta Yann Trelu haietarik da.

Alta, Euskal Herriari ekarpen oso handia egin dio Yann Treluk, hala nola 1970eko hamarkadan kalitate handiko diaporamak eginda ikastolen eta Seaskaren sorreraz, kooperatiben eraketaz eta beste. Lan horiek funtsezkoak izan ziren hainbat jenderen kontzientzia politikoa sortzean eta haztean. Halaber, Euskal Herriaren ezagupenerako —hemen bertan zein kanpo aldera— tresna eraginkorrak izan ziren. Yann Trelu izan zen ere Auñamendi mendi elkartearen eta Euskal Herriko argazkilarien biltzarreko sortzaileetarik. Auñamendikoek behintzat ez dute ahanzi Yann Trelu, haren heriotzaren berri emateko eta eskertzeko zein agur egiteko mezu bat argitaratu baitute. Alabaina, besterik nork egin du? Penagarria eta gizarte baten ezaxolaren adierazgarria, benetan.

Gaixotasunak harrapatu ere, Yann Treluk aitzina zera-man Britainia eta Euskal Herriaren artean zubi-lan bat egin, film dokumentalak eginda eta kultur topaketen antolakuntzan parte hartuz. *Le Télégramme de Brest* egunkariak haren heriotzaren berri ematean, oso artikulu izenburu polita egin zuen, iragan azaroaren 3ko edizioan: «Yann Trelu: le passeur de culture», hots, «Yann Trelu: kultura zubigi-

lea». Euskal Herriari eginiko azken ekarpenetarik zen *Iturritik itsasora* dokumentala, uraren inguruko apustu, auzi eta kezkek lantzen zituena, zein argi eta zein ongi. Yann Trellu joan zaigu, beraz, eta Bretainian agur eta ohore egin diote, hala nola Kemperren joan den azaroaren 20an *Aux origines de Diwan*, hots, Diwan bretoierako eskolen sorreraz egin duen azken dokumentalaren aurkezpenaren kariatara egin dioten omenaldian. Eta Euskal Herrian, bada, noiz egingo diogu agur eta ohore Yann Trelluri? Nire partetik behintzat kontzientzia hazle eta zubi-lan egile adiskide honi nahi nion erran: milesker Yann eta ez adiorik!¶